



1.- Hegazti antza du baina halere ugatzuna; egunez lo eta gauez esna; jaioberritan ere zarra du izena.

### **SAGUZARRA**

2.- Buruan gorrixka du ilea, aurpegia garau horiz betea, ez bakarrik abereen janari, baita ere gizakion elikagai.

### **ARTOA**

3.- Lanean egiten du eman ordez kendu, gainera, hala ere, patrika gizendu.

### **BIZARGINA EDO ILE-APAINTZALEA**

4.- Baserrian jaioa, baserrian hazia, mozten duenari bustitzen dio begia.

### **TIPULA**

5.- Preso naukaten bitartean ondo. Baina askatzen nautenean kito!

### **SEKRETUA**

6.- Ama dut hitz motela, aita abeslari, zuria dut azala eta bihotza hori.

### **ARRAUTZA**

7.- Atso zimurtsua, txarkerian ekimentsua, erratzean du bidaiatzen eta ume guztiak izutzen.

### **SORGINA**

8.- Zuek beti ni joka, eta ni berriz beti zuen jokoan.

### **BALOIA EDO PILOTA**

9.- Baditut sei aurpegi, bakoitzean hainbat begi, baina ez aho, ez belarri, zertarako ditut hainbeste aurpegi? **DADOA**

10.- Burua dut biribil, ez dut aurpegi edo kopeta, nire gorputza dabil ale txuriz beteta. **BÄRÄTXURIA EDO BERÄKÄTZA**

11.- Amak umea ezin, eta umeak jotzen du ama.

### **EZKILA EDO KÄNPÄÄ**

12.- Kanpotik zuria, baina ez irina, barrutik beltza, baina ez ikatza, mintzatzen da mihirik gabe, lasterka egiten zangorik gabe.

### **ESKUTITZA**

13.- Harantz joan eta honantz etorri, hankarik ez du eta ibiltzen ez daki.

### **BIDEA**

14.- Mendian jaio, mendian hazi, sukalderra etorri eta dantzan hasi.

### **ERRATZA**

15.- Izanagatik txikia gelan sartzean betetzen du guztia.

### **KÄNDELÄ**

16.- Hankak ditu baina ez da ibiltzen, ezta ni ere gainean banaiz esertzen.

### **AULKIA**

# ASMAKIZUNAK



17.- Aurpegia bat, bi esku, beti zauzkatet informatuta, eta halere sarri naukazue hormaren kontra zigortuta.

## ERLOJUA

18.- Itxita, makila; zabalik, teilatua; euriarekin puztu eta eguzkiaren ahaztu.

## EURITAKOA

19.- Ez da abere, baina hortzak erakustean harroenak ere hartzen ditu menpean.

## ORRAZIA

20.- Mendi baten aurrean hasi nintzen zarataka eta hark berdin-berdin egiten zuen errepika.

## OIHARTZUNA

21.- Itsasoan edan eta mendian pixa egiten duena.

## HODEIA

22.- Txaleko gorria, tripa hezurrezkoa eta hanka zurezkoa.

## GEREZIAK

23.- Biribil, biribil, beti pirritaka dabil.

## GURPILA

24.- Gose naizenean ezkurra dut amets; San Martinetan, berriz, labanaren beldurrez.

## TXERRIA

25.- Zer dela eta. Zer dela eta. Egunez okelaz beterik, gauean ahoa zabalik.

## ZAPATAK

26.- Ez naiz ezer eta badut izena, beti nabil zurekin nahiz izan argala edo gizena.

## ITZALA

27.- Bi mendien arteko tiro zaratatsua, sudurra ixteko moduko tiro usaintsua.

## PUZKERRA

28.- Hamabi gara sendian: zazpi, handiak; lau, erdian; eta bat, txikia.

## HILABETEAK

29.- Buru handia, baina leporik ez, ipurdi mugikorra baina hankarik ez.

## BONBILLA

30.- Berde jaio eta hori moztu, gogor estutu eta zuri saldu.

## GARI

31.- Udaberrian dotore apaindurik, eta neguan biluzik dabilena?

## ZUHAITZA EDO ARBOLA

32.- Zer dela eta zer da urdailean kosk egiten duena.

## GOSEA

33.- Erregina du, baina ez da errege, marrak ditu, baina ez da tigre, lan egiten du hegan, ospe handia du gure langileak.

## ERLEA

34.- Hegazti dotoreena omen, hegan ez egin arren, uretan trebe, lehorrean baldar.

## PINGUINOA

35.- Saguaren tamainakoa eta etxea zaintzen lehoia bezalakoa.

## GILTZA

36.- Ipurdia bai, hankarik ez; gorputza bai, besorik ez; lepoa bai, bururik ez.

## BOTILA

# ASMAKIZUNAK



37.- Polita naiz aurretik, itsusia atzetik, eten gabe ari naiz aldatzen eta bestek imitatzen.

## ISPILUA

38.- Neguan kalean ageri eta udan hozkailuan egoten dena.

## IZOTZA

39.- Hamabi senidetatik bigarrena izanik, txikiena naiz ni.

## OTSAILA

40.- Zuria eta borobila, gaueko eguzkia.

## ILARGIA

41.- Belarriak luze, isatsa motz, beti korrika eta saltoka ez da izango hotz.

## UNTXIA

42.- Eguzkia hasieran, bukaeran lorea, pipitak erdian ni naiz...

## EGUZKI-LOREA

43.- Etxea dut itxia, ez dauka leihorik, ezin handik atera, apurtu gaberik.

## TXITA

44.- Nahiko estua eta luzea, barnean sua kanpoan kea.

## TXIMINIA

45.- Txiki-txikia eta borobila, hankabakarra eta buruhandia.

## TXINTXETA

46.- Hori da gizajoa hori! ibili eta ibili eta bere etxetik ezin irten.

## BARRASKILOA

47.- Lepoan lotuta, dotore egoteko, ez estutu asko, ez itotzeko.

## GORBATA

48.- Jantzirik ez eta poltsikoa bai. Nola izan daiteke?

## KANGURUA

49.- Leiho parea aurpegi erdian, egunez zabalik gauez itxita.

## BEGIAK

50.- Bikiak dirudite, biak zuri-zuriak, baina elkarren etsai dira eta ia inork ez ditu batzen biak.

## AZUKRETA ETA GATZA

51.- Azala laranja du, kapela berdea, lurpean bizi ohi da untxien platera.

## AZENARIAK

52.- Piruleta distiratsuak kalean: orain marrubizkoa, orain laranjazkoa, orain mendazkoa.

## SEMAFOROA

53.- Aho handia egarri, ipurdi estua iturri, besterik ez du: Aho eta ipurdi.

## INBUTUA

54.- Hankak eduki eta ibili ezin, burua eduki eta pentsatu ezin, bizkarra janariz betea eta berak jan ezin.

## MAHAI